

*“Garoña, itxi orain!”*

## **GAROÑA-KO ZENTRAL NUKLEARRA IXTEAREN ALDEKO ADIERAZPENA**

Hainbat elkarte eta erakunde ekologista, sindikal eta politikok Garoñako zentral nuklearraren itxiera eskatzeko, martxoaren 10ean Bilbon antolatu dugun manifestazioan parte hartzeko deialdia egin nahi dugu.

Fukushimako istripuaren urteurrena dela eta, alderdi popularraren gobernuari, Garoñako zentral nuklearra berehala ixteko eskatzen diogu eta arrisku nuklearra salatzen euskal herritarrak mobilizatzen deitzen ditugu.

Igande honetan, martxoak 11, Japoniako Fukushima-Daiichi-ko lau errektore atomiko hondatu zituen istripu larria gertatu zenetik urte bat beteko da. Errektore nuklear horiek, hilabetetan zehar isuritako erradiaktibitate kopuru handiek, gizakion osasunean eta ingurugiroan, eragindako kalteak oraindik ere ez dira ondo ezagutzen. Askatutako erradiaktibitatea gutxienez, Txernobil-en askatutakoaren %20a dela egiaztatu dute, eta jakina denez, Txernobil-en milaka hildako eta milaka milioi eurotako kalte materialak egon ziren.

*Egunotan, Alderdi Popularraren industria ministro berriak, bere alderdiak hartutako erabaki politiko eta sozialekin bat eginez, Garoñako zentral nuklearraren bizitza 2019raino luzatzeko asmoa azaldu du, 2013rako aurreikusita zegoen itxiera bertan behera utziz.*

Gobernu berriak Energia Nuklearraren Kontseiluari, CSNari, zentralaren inguruko txosten bat egiteko agindu zion eta txosten honek Garoñaren bizitza luzatzeko arazorik ez dagoela esaten du, guk txosten honen balioa zalantzatan jartzen dugu kontseilu honen objektibotasun ezagatik. Honekin batera gogorazi nahi dizuegu, 2009ko dekretutik hona egin beharreko berrikuntzen %25a baino gutxiago egin dituztela eta honengatik, gure salaketa bikoitza da; alde batetik, azkenengo hiru urteetan CSNak zentralaren gainean izan duen kontrol eza, eta beste aldetik, zentralaren egoera onargarritzat hartzea, Garoñan akats eta anomalia ugari eman eta ematen ari direnean. Gainera, ez dugu ahaztu behar Europako Batzordeak zentralari egindako estres frogan emaitzak, oraindik aztertzen ari dituela. Hau guztiagatik, CSNari egindako txostena zuzentzeko eskatzen diogu eta bide batez, ebaluazio berri bat egitea eskatzen dugu, oraingo honetan zorrotza eta sakona.

Beste aldetik, Aznar-ek zuzendutako FAES erakundeak, energiaren alorrean emandako irizpideak jarraituz, eta Iberdrola eta Endesa bezalako enpresa elektriko handien interesak babestu nahian, Soria industria ministroak, hemendik aurrera, energia berriztagarrien aldeko diru laguntzak eteteko agindua eman du. Honek, ingurugiroan ondorio larriak izango ditu eta gainera, energia berriztagarrien sektore ekonomikorako kolpe latza izango da, hurrengo urteetan milaka lanpostu galduko dira eta.

Santa Maria de Garoña zentral nuklearra Burgosen dago, Tobalinako haranean, Euskal Herritik kilometro gutxitara, eta 1971an Francok zabaldu zuen. Garoña, Espainiako zentral nuklear zaharrena da eta lehenengo belaunaldiko zentral nuklearren

artean, bera da martxan jarraitzen duen bakarra; Vandellós I 1990ean itxi zuten istripu baten ondorioz eta gobernuak Zorita 2006an itxi zuen.

Garroña zabaldu zutenetik, 41 urte pasa dira eta denbora tarte honetan istripu ugari gertatu dira, larrienak hauexek dira: 1975ean isurketa atmosferara, hodei erradiaktiboa sortuz; ur erradioaktiboaren isurketa, 2.880 litro, 1981ean; txatarra erradiaktiboa birziklatzeko biltegi batera eraman zuten 2004ean; erregaian hausturak gertatu ziren eta lehenengo zirkuituan erradioaktibitatea askatu zen 2007an. Honi gehitu behar zaio Ebroko uraren gehiegizkoa beroketa. Azkenik, erreaktorearen ontzia eta lehenengo zirkuitua, kaltetu dituen korrosio prozesuak hainbat pitzadura sortu ditu, arazo hau, 1981ean antzeman zuten lehenengo aldiz eta oraindik ez dute konpondu.

Garroñak, zentral nuklear guztiak bezala, hondakin erradioaktiboak sortzen ditu, eta milaka eta milaka urtetan zehar oso arriskutsuak izaten jarraitzen duten hondakin hauentzako, ez dago konponbide teknikorik. Garroñako hondakinak (haien artean plutonioa, 250.000 urtetako bizitza erradioaktiboa duena) Ingalaterrara eraman izan dira, baina, azken urteetan zentralaren ur-biltegietan gordetzen ari dira.

Gobernu popular berriak, Cuencan, “hilerri nuklear” bat eraikitzeko erabakia hartu berri du, Aldi Baterako Biltegi Bateratua izenaz ezagutzen dena, Estatu Espainiarreko zentral nuklear guztien aktibitate handiko hondakinak bilduko dituen.

Garroñak, bizitza ekonomikoa edo amortizazio garaia orain dela hamabost urte bete zuen eta hori dela eta, oso errentagarria bihurtu da, gaur egungo kostuak soilik, erregai erradioaktiboa, langileen soldatak eta konponketa lan eskasak baitira.

Garroña ez da beharrezkoa, honek sistema elektrikora egiten duen ekarpena, ohiko energiak eta energia berriztagarriak ordezkatzeko gai dira. Bere potentzia, estatu espainiarreko sistema elektrikoaren potentziaren %0.6a baino ez da eta bere ekoizpena, ekoizten den, elektrizitate guztiaren %1.5a baino gutxiago da.

Garroña, Euskal Herritik kilometro gutxitara dago, Gasteizetik 45 Kilometrotara eta Bilbotik 80 kilometrotara. Burgoseko Larrialdi Nuklearretarako Planak, 30 Kilometroko erradioan neurriak hartzea aurreikusten du. Estatu Batuek, 1979eko Harrisburg-eko istripua gertatu eta gero 90 Kilometro hartzen dituzten planak eskatzen dituzte eta Fukushima-ko istripuan 40 Kilometroko erradioa erabili zuten.

Fukushima-ko lehenengo erreaktorea, Garroñako zentralaren bikia da, teknologia berbera du (BWM, “ura irakitenekoa” bezala ezagutzen dena), antzeko potentzia dauka (460 Mw) eta urte berean zabaldu zuten (1971-an). Nuclenor enpresak, Garroña, Fukushimako zentralaren ahizpa bezala aurkeztu izan du behin baino gehiagotan, eta 2010eko ekainean Fukushimako teknikoak Garroñara etorri zirenean, Nuclenor-ek bisita hori Garroñako zentralaren segurtasunaren frogatzat hartu zuen.

Fukushimako istripua eta gero, Alemaniak, bere 7 zentral zaharrenak itxi zituen eta hemendik 2021era, 10 zentral gehiago ixteko plana aurkeztu du eta honekin batera, energia berriztagarrien aldeko apustu garbia egin du. Espainiak ordea, Fukushima-ko istriputik ikasi beharrean, zentral nuklearren bizitza berrogei urtetatik gora luzatzeko erabakia hartu du, Garroñaren kasuan 2019ra arte.

Euskal gizarteak eta bere instituzioek (udalak, aldundiak, Eusko Legebiltzarrak), Garoñako zentral nuklearra ixtearen aldeko jarrera azaldu dute behin baino gehiagotan.

Garoña zaharkitutako zentral nuklearra da, ez da beharrezkoa, arriskutsua da eta aspalditik amortizatuta dago.

Hau guztiagatik, Bizkaiko herritar guztiak martxoaren 10ean, larunbata, Garoñaren itxiera eskatzeko manifestazioan parte hartzera animatu nahi ditugu.

*Bilbon, 2012ko martxoa 6an*

## ***“Garoña, itxi orain!”***

### **MANIFIESTO POR EL CIERRE DE LA CENTRAL NUCLEAR DE GAROÑA**

**Organizaciones sociales, ecologistas, sindicales y políticas convocan una Manifestación el 10 de marzo en Bilbao para reivindicar el cierre inmediato de la central nuclear de Garoña.**

***Coincidiendo con el primer aniversario del accidente nuclear de Fukushima, piden al Gobierno del Partido Popular el cierre inmediato de la central nuclear de Garoña. Llaman a la sociedad vasca a movilizarse para denunciar el peligro nuclear***

El próximo 11 de marzo se cumple un año del accidente nuclear que afectó gravemente a 4 reactores atómicos de Fukushima – Daiichi en Japón. Hoy todavía no se conocen las consecuencias sobre la salud y la vida humana y sobre el medio ambiente de las enormes cantidades de radiactividad expulsadas por esas centrales durante varios meses. Se calcula que serán en torno al 20% de las emitidas en Chernobyl donde hubo miles de personas afectadas hasta la muerte y miles de millones de euros en daños materiales.

***En estos días, el nuevo ministro de Industria y Energía del Partido Popular, sumándose a las agresivas medidas políticas y sociales de su partido, ha anunciado su intención de prolongar la vida de la central nuclear de Garoña hasta el año 2019, sobrepasando la prórroga actual y la previsión de cierre para el 2013.***

El nuevo gobierno encargó al Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) un informe sobre la central que concluye que no hay inconveniente en alargar la vida de la central de Garoña, informe que nosotros y nosotras ponemos en duda por la falta objetividad de este consejo. Además, queremos recordar, que desde el decreto del 2009 no se ha realizado ni un 25% de las reformas que se iban a realizar, por lo tanto denunciamos por un lado, el descontrol por parte del CSN en estos tres últimos años, y por otra lado (sin haber acabado las actuaciones anteriores) que de por buena la actual situación de la central, habiéndose detectado incontables anomalías y fallos en dicha central. Sin obviar que la Comisión Europea todavía está valorando los resultados de las pruebas de estrés llevadas a cabo en esta central. Por esto, pedimos una al CSN que rectifique su informe y que se realice una nueva evaluación, que sea rigurosa y exhaustiva.

Al mismo tiempo siguiendo los dictados en materia de energía de FAES presidida por Aznar y los intereses de las grandes empresas eléctricas como Endesa e Iberdrola, el ministro Soria ha decretado la paralización del desarrollo de las energías renovables retirándoles en adelante las primas y ayudas públicas, lo cual tendrá graves consecuencias medioambientales y para el futuro de este sector económico, con la pérdida de decenas de miles de puestos de trabajo.

La central nuclear de Santa María de Garoña, ubicada en el Valle de Tobalina (Burgos) a escasos kilómetros de Euskal Herria, fue inaugurada por Franco en 1971. Es la más antigua y la única central en funcionamiento de la “primera generación”: Vandellós 1 fue cerrada en 1990 por un accidente y Zorita en 2006 por una decisión política.

Desde entonces han pasado 41 años de funcionamiento, plagado de incidentes, averías y accidentes: emisión atmosférica y nube radiactiva en 1975; fuga de 2.880 l. de agua radiactiva en 1981; envío de chatarra contaminada a un almacén de reciclado en 2004; rotura de combustible con liberación de radiactividad al circuito primario en 2007, calentamiento de aguas del Ebro... son algunos de ellos destacados. Desde 1981 vienen detectándose problemas de agrietamiento múltiple por corrosión intergranular que afecta a elementos fundamentales de la vasija del reactor y otros del circuito primario. Problemas que hoy día siguen sin ser solucionados.

Garoña, como toda central nuclear, genera residuos radiactivos para los que actualmente no hay una solución segura en ningún país del mundo. Los residuos de alta actividad de Garoña (entre ellos plutonio, con una vida radiactiva de 250.000 años) fueron llevados durante años a Inglaterra de forma provisional. Desde hace años se almacenan en piscinas en la propia central. Ahora el Gobierno popular ha decidido también construir un “cementerio nuclear”: el Almacén Transitorio Centralizado (ATC) en Cuenca, para los residuos de alta actividad de todas las centrales nucleares del Estado español.

Su “vida económica” o período de amortización está cumplida desde hace más de 15 años, por lo que resulta extremadamente rentable para sus propietarios, cuyos costes se limitan al combustible (uranio enriquecido), mano de obra y escasas inversiones de mantenimiento.

Garoña no es necesaria y su escasa aportación al sistema eléctrico está ya sustituida por energías renovables y otras convencionales. Su potencia instalada supone apenas el 0,6% del sistema eléctrico español. Su producción, menos del 1,5% de la producción eléctrica, está sustituida hace tiempo por las energías renovables.

Garoña se encuentra a escasos kilómetros de Euskal Herria y próxima a grandes núcleos de población como Gasteiz (45 kms. en línea recta) y Bilbao (unos 80 kms.), donde viven cientos de miles de personas. Núcleos que están fuera del escaso margen de previsión del Plan de Emergencia Nuclear de Burgos, que sólo contempla radios de 30 kms. de actuación, frente a los 90 kms. recomendados por EEUU tras el accidente de Harrisburg en 1979 y los 40 que se produjeron en Fukushima.

La central nuclear de Garoña es gemela del reactor 1 de Fukushima: conectadas a la red el mismo año (1971), con la misma tecnología (BWM o agua en ebullición), el mismo sistema de contención (Mark-1) y similar potencia (460 y 439 MW, respectivamente). Meses antes del accidente el Director de Mantenimiento de Fukushima 1 y 4 visitaba Garoña y declaró *“hemos evaluado la posibilidad de operación de nuestro reactor 1 hasta los 60 años y hemos concluido que es posible”*.

El Gobierno de Zapatero concedió en julio de 2009 una última prórroga de 4 años, orientada hacia su cierre en 2013, aunque no decretó éste. Nuclenor (Iberdrola y Endesa) había solicitado una prórroga de funcionamiento para 10 años más.

Ahora, en lugar de aprender las lecciones de Fukushima, como han hecho en Alemania cerrando inmediatamente las 7 centrales nucleares más viejas de sus 17 en actividad y recuperando el programa de cierre total a plazo, aquí se insiste en prolongar la vida de las nucleares más allá de la racionalidad y el sentido común. En el caso de Garoña, hasta el 2019 y más.

La sociedad vasca, que en su día rechazó la central nuclear de Lemoiz, y las propias instituciones (Ayuntamientos, Juntas Generales, Parlamento vasco) se han manifestado reiteradamente por el cierre inmediato de la central nuclear de Garoña.

La central nuclear de Garoña es vieja, insegura, peligrosa, innecesaria y ya está amortizada y sustituida. Es el momento de decretar su cierre sin más demora.

Por todo ello, llamamos a la ciudadanía de Bizkaia a manifestarse de forma activa y multitudinaria el sábado 10 de marzo, para unir su voz exigiendo el cierre inmediato de la central nuclear de Garoña.

***Bilbao, febrero de 2012***